

DANTZERTIKO SARBIDE FROGAK

2021EKO IRAILA

EUSKERAZKO TESTUAK:

Uda gau bateko ametsa, William Shakespeare

Puck: Nire andrea mamu batez maitemindua duzu. Bere aterpe bakar, agurgarriaren urbil lo zorroak arturik zegolarik, burua ateratzeko Atenaiko dendaetan ari diran langille zakarrak, zapartingarri talde bat aratu da Teseu aundiaren ezta egunean antzestu nai duten komeri bat saiatzeko. Lagun iñozo orietako ergelena, Piramuren irudia egiteko dana, agertokitik irten eta zara batean sartu da, ta ordun nik mugonera jotzen, asto buru bat tinkatu nion lepo gaiñean. Bereala, Tisberi erantzun bear ziola ta badator berriz nire zapartingarri. Gaiñerakoak, ura ikusi baikoz iges egin dute, ziri-zara doakion eiztariaren begia arkitu dan ate izua antzo, ala suizkilluaren dunbada entzutean goratu ta karrankaz zeruan zear egaketa lasterraz banatzen diran txo sail bat iduri. Nire oinkada otsaz bein eta berriz erortzen da bat eta iltzen dutela deadarrez ari da ta Atenairi elka. Burua aulago ta beldurra aundiago, edozein gauza bizigabe, etsai biurtzen dute. Sasiak eta arantzek atzitzen ditute aien jantziak; onen mauka, aren ginbailla ta dana uzten dute. Onela estutzen nitun bitartean, Piramu galanta antxe nun antzaldaturik eta kinka artan, Titani esnatu ta berealaxe asto batez maitemindu da.

Zeure ikaslea hil, Carles Mallol

Enric: Nire txakurra zen. Kanpoan ikusi duzun lorategian, etxola bat zegoen. Oraindik ere badago, ez dakit ikusi duzun. Bertan bizi zen Eddie. Eddie nire txakurra zen. Eleberriko mutilak Edu izena du. Halaxe izan zen. Txakurra. European zehar bidaia bat egin nuen hogeita bat egunez, nire trilogía aurkezteko. Trilogía bat idatzi dut. Sekula ez dut horren bira luzerik egin. Ezta horren eleberri lluzerik idatzi. Pozik nengoen, oso pozik. Hotelik onenetan egonda ere, oso gaizki jan nuen, ez naiz kexatzen, baina aurkezpen bat eta bestearen artean, elkarrizketa baten eta bestearen artean, ez nuen eserita egon nahi eta paseoan irteten nintzen, hiriak ezagutu nahi nituen, frankfurt eta kebab-ak jan. Urdaila giltzurrun bihurtzeko puntuan itzuli nintzen. Justu etxe aurrean aparkatu nuen. Gorroto ditut taxiak. Autoa hilabete osoan utzi nuen aireportuan aparkatuta. Dirutza. Eddiek autotik jeisten nintzela nabaritu zuen. Zaunka hasi zen. Eddie pozik zegoen. Ni ere bai. Eddie lodiago zegoen. Laurak edozein zerrikeria ematen dio. Ni argalago nengoen. Antza denez, Frankfurt eta kebab-ak janda argaldu egiten da. Gose nintzen. Sofan eseri eta hanburgesa bat jateko gogoia nuen. Hanburgesa jatea ez da gaizki jatea. Nire emaztea ez zegoen. Pilates egiten du uneoro. Laster bere bizkarrak bi metroko luzeera izango du. Hozkailua ireki nuen. Barazkia. Hanburgesarik ez. Sofara itzuli nintzen. Ezin badut jan ,lo egiten dut. Jet-laga aitzakia ederra da. European ez dago, baina berdin dio. Luzatu egin nintzen eta Eddie zaunka hasi zen. Begiak itxi nituen, baina Eddiek ozenago egiten zuen zaunka. Eta

jenio biziz. Pozik zegoela ematen zuen, baina ez. Gose izango zen. Lodiago zegoen. Laurak gaizki ohitu du, gehiegi jaten du. Eddie txakur potoloa zen. Lodia. Gizena. Nire hanburgesa guztiak jango zituen, seguru. Zaunka ari zen. Altxatu egin nintzen. Hozkailuko barazki guztiak hartu nituen. Baten batek on egingo zion. Lorategira irten nintzen eta barazkiak eman nizkion. Barazkiei begira geratu zen. Gero, niri. Elkarri begira geratu ginen. Ergela ote nintzen galdetzen zidala ematen zuen. Gero eta gehiago egiten zuen zaunka. Gero eta amorru handiagoarekin. Isiltzeko eskatu nion. Buruak min ematen zidan. Azenario bat sartu nion ahoan. Bota egin zuen. Gero eta gehiago egiten zuen zaunka. Barrurago sartu nion azenarioa. Eskuak ahoa ukitzen zion eta hozka egin zidan. Putasemea, Eddie! Agian, nire errua izan zen. Kabroiak hozka egin zidan. Buruko mina nuen. Isiltzeko eskatu nion. Eta egin zuen. Barrura bueltatu nintzen. Luzatu egin nintzen, begiak itxi nituen eta buruan kuxina jarri nuen. Sofa odolez zikintzen ari nintzen. Agian, zauria garbitu behar nuen, baina urduritzen hasita nengoen: Eddie berriz zaunka ari zen. Lehendabizi isilarazi egin nahi nuen. Eskuak sekulako mina ematen zidan... Larunbatean ezin banintzen tenisean jolastera joan, Eddieren errua izango zen. Saiatu nintzen, benetan saiatu nintzen. Isiltzeko eskatu nion, barazkiak eman nizkion, baina ez zen isildu, ez zen isiltzen, "ona izan naiz zurekin, Eddie, nekatuta nago, nire hanburgesa guztiak jan dituzu, ez didazu lo hartzen uzten, isildu zaitetz, Eddie, isildu zaitetz, dena egin dut zugaitik eta ez zara isiltzen." Horregatik burua txikitu nion erraketarekin. Plas, plas, plas, plas. Eta isildu egin zen.

Zekena, Molière

HARPAGON: *(Laguntza eske dator lorategitik, eta ez dakar kapelurik)* Lapurra! Lapurra! Hiltzailea! Asasinoa! Justizia, jainkoarren! Galdua naiz, akabatua, lepozintzurra moztu didate, nire dirua harrapatu didate. Nor izan da? Zer gertatu da? Non dago? Non ezkutatu da? Zer egin behar dut aurkitzeko? Non hasi bila? Non ez hasi bila? Ez dago hemen? Ez dago hor? Nor da hau? Geldi hor! Itzuli nire dirua, bilaua. *(Bere besoari heltzen dio)* Ene bada!, neu naiz. Nahastuta daukat burua, eta ez dakit ez non nagoen, ez nor naizen, ez zertan nabilen. Erruki ni! Nire diru gaixoa, nire diru gaixoa, nire lagun kutuna! Zu gabe utzi naute; eraman egin zaituzte, eta galdu dut nire sostengua, nire kontsolamendua, nire bizipoza; dena amaitu da niretzat, jada ez dut zer eginik munduan: zu gabe ezinezkoa zait bizitzea. Akabo, ezin dut gehiago; hiltzen ari naiz, hilda nago, lurperatuta nago. Ba ote da berpiztuko nauen norbait, nire diru maitea itzuliz edo nork harrapatu duen esanez? Aizue? Zer esaten duzue zuek? Ez dago inor. Edozein izanik ere kolpe-emailea, kontu handiz ibili da eta ordua zaindu du. Eta, hain zuzen ere, nire seme traidorearekin hizketan ari nintzen unea aukeratu du. Goazen. Banoa justiziaren bila tormentua eman diezaion etxe guztiari: zerbitzariei, morroiei, seme-alabei, eta baita niri neuri ere. Zenbat jende batera! Begiratzen dut eta ez dut ikusten susmagarria ez den inor, nire lapurra iruditzen ez zaidan inor. E! zertaz ari dira haiek? Lapurraz? Zer da han goiko zarata hura? Han ote dabil nire lapurra? Mesedez, nire lapurraren berririk baduzue, esateko erregutzen dizuet. Ez da ba zuen artean ezkutatuta egongo? Begiratzen didate eta denak barrez hasten dira. Jokatuko nuke denak nahastuta daudela nire lapurretan, ez izan zalantzarik. Zabiltzate bizkor komisarioak, jendarmeak, aguazilak, epaileak, oinazegailuak, urkabeak eta borreroak. Mundu guztia eskegiaraziko dut, eta nire dirua ez badut aurkitzen, neure burua ere bai.

TEXTOS EN CASTELLANO:

Sueño de una noche de verano, William Shakespeare

PUCK: Mi señora está enamorada de un monstruo. Mientras cerca de su retiro sagrado y solitario pasaba la hora de su lánguido sueño, ha llegado una compañía de cómicos imbéciles, de groseros artesanos que trabajan para ganarse la vida en las tiendas de Atenas. Venían a ensayar una pieza que debe representarse el día de las bodas del insigne Teseo. El más necio de la estúpida cuadrilla, encargado del papel de Píramo, ha salido de escena y ha entrado en un matorral. Yo he aprovechado el momento para encasquetarle una cabeza de asno. Al tocarle el turno de volver a escena para contestar a Tisbe, mi actor ha salido. Apenas le han visto los demás, cuando han huido, semejantes el ánade silvestre que ha encontrado el ojo del cazador en acecho o a una bandada de chovas rojizas al escuchar la detonación del mosquete, que ora bajan, ora alzan el vuelo, y de pronto se dispersan y hienden los campos del aire con precipitado aleteo. Al ruido de mis pasos, cae de vez en cuando uno por tierra, gritando que lo asesinan y pidiendo socorro a Atenas. En su turbación, sus insensatos terrores se forjaron un enemigo de cada objeto inanimado. Los abrojos y espinas desgarraban sus vestidos: a éste la manga; a aquel el sombrero, que se apresuraban a abandonar. Mientras los cazaba de este modo, había dejado en la escena al lindo Píramo en su metamorfosis, cuando Titania ha despertado y en seguida se ha enamorado de un jumento.

Roberto Zucco, Bernard Marie Koltés

EL HERMANO. No tengas miedo de mí, pichoncito. No te haré daño. Tu hermana es una estúpida. ¿Por qué cree que yo te iba a pegar? Ahora eres una mujer, y yo nunca he pegado a una mujer. Me gustan mucho las mujeres; es lo que más me gusta. Es mucho mejor que una hermana pequeña. Una hermana pequeña es una lata. Hay que vigilarla todo el tiempo, sin perderla de vista. ¿Para proteger qué? ¿Su virginidad? ¿Cuánto tiempo hay que estar vigilando la virginidad de una hermana? Todo el tiempo que he pasado cuidando de ti es tiempo perdido. Y echo de menos ese tiempo. Echo de menos cada día, cada hora que he perdido vigilándote. Más valdría desflorar a las chiquillas en cuanto son chiquillas, así se dejaría en paz a los hermanos mayores, que no tendrían nada que vigilar y podrían ocupar su tiempo en otros asuntos. Me alegro de que te hayas dejado violar por un tipo, porque ahora tengo paz. Tú vas por tu camino, yo voy por el mío, ya no te llevo a cuestras como una cruz. Ven a tomar una copa conmigo. Ahora tienes que aprender a no bajar los ojos, a no sonrojarte, a atreverte a mirar a los chicos. Todo eso se acabó. Sé descarada. Levanta la cabeza, mira a los chicos, míralos a la cara, les encanta. No sirve de nada que sigas siendo recatada ni un minuto más. Hazte notar, pequeña, y en seguida. Abandónate a la naturaleza, vete a hacer la calle en el Pequeño Chicago con las putas, hazte puta: ganarás pasta y no dependerás de nadie. Y si nos encontramos en los bares de alterne, te haré una seña, seremos hermanos y hermanas de bar; es menos aburrido y te diviertes más. No pierdas más el tiempo bajando la mirada y cerrando

las piernas, pichoncito, eso ya no sirve de nada. De todos modos, ahora, la boda se ha ido al garete. Merecía la pena vigilarte para la boda, merecía la pena que bajaras tímidamente los ojos hasta el día de la boda, pero ahora la boda se fastidió, así que todo los demás se fastidió también. De un solo golpe, así todo se ha ido al garete: la boda, la familia, tu padre, tu madre, tu hermana; y a mí me da igual. Tu padre ronca de pena, y tu madre llora; más vale dejarlos que lloren y ronquen y marcharse de casa. Puedes tener críos: nos da igual. Puedes no tenerlos, también nos da igual. Puedes hacer lo que quieras. He dejado de vigilarte, y tú has dejado de ser una chiquilla. Ya no tienes edad; podrías tener quince o cincuenta años, es lo mismo. Eres una mujer y a todo el mundo le da igual.

Roberto Zucco, Bernard Marie Koltés

HERMANA: ¿Dónde está mi paloma? ¿A qué inmundicia ha sido arrastrada? ¿En qué infame jaula has sido encerrada? ¿Qué animales perversos y viciosos la rodean? Quiero encontrarte, tortolita mía, te buscaré hasta que me muera (Tiempo). El macho es el animal más repugnante entre todos los animales repugnantes que produce la tierra. Hay un olor en el macho que me asquea. A ratas en las cloacas, a cerdos en el cieno, un olor a estanque donde se pudren cadáveres. (Tiempo). El macho es sucio, los hombres no se lavan, deja que la suciedad y los líquidos repugnantes de sus secreciones se acumulen en sus cuerpos, y no los tocan, como si fueran bienes preciados. Los hombres no se huelen entre ellos porque todos tienen el mismo olor. Por eso se relacionan entre ellos, todo el tiempo, y andan con putas, porque las putas aguantan ese olor por dinero. He lavado tanto a esa pequeña. La he bañado tantas veces antes de la cena, y la he bañado por la mañana, le he frotado la espalda y las manos con el cepillo y le he cepillado las uñas por dentro, le he lavado el pelo todos los días, y le he cortado las uñas, la he lavado todos los días de arriba abajo con agua y jabón. La he tenido blanca como una paloma, le he peinado las plumas como a una tortolita. La he protegido y guardado en una jaula siempre limpia para que no manchara su blancura inmaculada en contacto con la suciedad de los machos, para que no se dejara apestar por la peste del olor de los machos. Ha sido su hermano, esa rata entre las ratas, ese cerdoapestoso, ese varón corrompido, el que la ha ensuciado y hundido en el cieno y arrastrado por los cabellos hasta su estercolero. Hubiera debido matarlo, hubiera debido envenenarlo, hubiera debido impedir que rondara la jaula de mi tortolita. Hubiera debido levantar alambradas en torno a la jaula de mi amor... Hubiera debido aplastar a esa rata con el pie y quemarla en la estufa. (Tiempo) Todo está sucio aquí. Toda la ciudad está sucia y poblada de machos. Qué llueva, qué siga lloviendo, qué la lluvia lave un poco a mi tortolita en el estercolero donde se encuentra.

El avaro, Molière

HARPAGÓN: ¡Al ladrón! ¡Al ladrón! ¡Al asesino! ¡Al criminal! ¡Justicia, justo cielo! ¡Estoy perdido! ¡Asesinado! ¡Me han cortado el cuello! ¡Me han robado mi dinero! ¿Quién habrá podido ser? ¿Dónde habrá ido a parar? ¿Dónde está? ¿Dónde se esconde? ¿Cómo haré para encontrarlo? ¿Adónde ir...? ¿Adónde no ir...? ¿No está ahí? ¿Quién va...? ¡Detente! ¡Devuélveme mi dinero, bandido...! (A sí mismo, agarrándose el brazo.) ¡Ah, soy yo! Mi espíritu está trastornado; no sé dónde me encuentro, ni quién soy, ni lo que hago. ¡Ay!

¡Mi pobre dinero! ¡Mi más querido amigo! Al privarme de ti, al arrebatárteme, he perdido mi sostén, mi consuelo, mi alegría; se ha acabado todo para mí, y ya no tengo nada que hacer en el mundo. Sin ti, me es imposible vivir. Se acabó, no puedo más; me muero... Estoy muerto; estoy enterrado... ¿No hay nadie que quiera resucitarme, devolviéndomelo, o diciéndome quién me lo ha robado? ¡Eh! ¿Qué decís? No hay nadie. Quizá el autor del golpe habrá acechado el momento con mucho cuidado, y ha escogido precisamente el momento que yo hablaba con el traidor de mi hijo... Salgamos. Voy a buscar a la justicia, y haré que den tormento a todos los de mi casa; a sirvientas, a criadas, al hijo, a la hija, y, si es preciso, también a mí. ¡Cuánta gente reunida! No pongo la vista en nadie que no despierte mis sospechas, y todos me parecen el ladrón. ¡Eh! ¿De qué se habla ahí? ¿Del que me ha robado? ¿Qué ruido hacen arriba? ¿Está ahí el ladrón? Por favor, si alguien sabe noticias de mi ladrón, suplico que me informen. ¿No está escondido entre vosotros? Todos me miran y se ríen. Ya veréis como tomaron parte, a no dudarlo, en el robo de que he sido víctima. ¡A mí comisario, alguaciles, prebostes, jueces, tormentos, horcas, verdugos...! Quiero colgar a todo el mundo, y si no encuentro mi dinero, me ahorcaré yo después...